

LOREA



Lurretik dezu, lore ederra
zure agertze garbiya,
metasunean zure chortentak
diruri dala ariya;
choryak zure inguruan du
egiten bere kabiya,
arrautzetatik argira dezan
mundura ume aldiya.

Guztiyak gera biyotzko pozez
egoten zuri begira,
ikusirikan sortzen zerala
maitagarri bat argira;
michirrikaren joan etorriyak
beti zuregana dira,
zeñak dizkitzun bere achapar
me ayek sartzen mamira.

Premiyazkua zera munduan,
zu gabe ezer ez gera,
biziya degun guztiyentzako
naigarriena zu zera;
erori arren chortenetikan
autsirik, oso lurrera;
ala ere zuk poza diguzu
ekartzen biyotz gurera.

Edergarritzat artzen zaitugu
udaberriyan sarreran,
adierazten diguzularik
geroagoko zer zeran;
zuk emanaren pozaren bidez
zureganaturik, egan
chori chikiyak nai dute beti
zure zumotikan eran.

Izanagatik zure sortzea
landaretikan lurrean,
edergarri bat ongarritua
zauzkagu beti aurrean;
ala noranai begiratu ta
ikusten zera gañean
nola errege, ala dezaken
denen erdiyan mayean.

Mintsu dagona ere zuk dezu
piškortu edo sendatzen,
zeña diraden indar galduak
zumo zurez topatzen;
aizeak zure chortenetikan
baldin bazaitu botatzen,
gizonak zaitu bere ongarri
guztiyaz andik jasotzen.

Lurretik jaso baño lenago
eskeintzen zaizu tokiya,
billa nairikan zuk barrunean
daukazun zumo lodiya;
zugandikan da sortzen artoa,
janari sendo oriya,
eta erreguz eskatzen degun
eguneroko ogiya.

JUAN IGNAZIO URANGA.

